

(AHOZKOTASUNA LANTZEKO JARDUERAREN DISEINUA ESPERIENTZIAREN ONDORENGO ORRIALDEETAN AURKITU DITZAKEZUEI)

JARDUERAREN DISEINUA PRAKTIKARA ERAMANDA - ESPERIENTZIA -

PRESTAKUNTZA FASEA

Hirugarren mailan burututako egonaldi praktiko honek eskolaren barne funtzionamendua ezagutzeko aukera bikaina eskaini digu. Eskolarekin sortzen den harreman estu horri esker, eskola ezberdinetako beharrak eta eskariak berehala eta modu iraunkorrean ezagutzeko aukera izan dugu; eta, ondorioz, gure hezkuntza-teorikoa behar horietara egokitu dezakegu eta era kritikoan aztertu ere.

Horren adibide argia dugu, Hizkuntzaren didaktika eta ingelesa ikasgaien burutu behar izandako jardura. Lehenengo lauhilekoan zehar landutako edukiak praktikara eramateko aukera izan dugu, eta bertan, modu zuzenean haurren beharrak somatu eta gure jarduna ume talde zehatz batera moldatu ere. Hezkuntza eremuan ahozko komunikaziorako baliabide ezberdinak modu praktiko batean ezagutu ditugu hilabete hauetan zehar, eta esan aipatu dudanez, eduki teoriko batzuk egoera errealera eramateko aukera ere.

Jardura burutu aurretik, haurren inguruko zenbait informazio jaso nuen, hala nola; ikasleen ama hizkuntza, euskerarekin izandako harremana, haur bakoitzaren izaera

eta haurren ahozketasun maila ezberdinak eta batzuen arazoak. Behin informazio hori jasota, bi hilabete hauetan ikasgelan ahozketasuna lantzeko proposatu ziren jarduerak aztertu eta kuadernotxo batean bildu egin nituen, etorkizunean nire jardunerako lagungarriak izango zirelakoan.

Esan beharra daukat, behin informazio hori lortuta eta irakaslearekin hitz egin ondoren, proposatutako jarduera aldatzea erabaki nuela. Ume guztien ama hizkuntza erdara izanda eta batzuk euskaraz hitz bat ere ez esateko kapaz ez zirela ikusita, asmakizunen kontua euren ahozketasuna lantzeko beharbada aproposa ez zela ondorioztatu nuen. Nire helburua ez zen haurrak hitz egitera behartzea galdera anitz planteatuz, eta beraz, azkenean beste jarduera bat diseinatu nuen, pentsatuz euren motibazioa eta interesa modu naturalago batean piztuko nituela.

GAUZATZE FASEA

Jardueraren nondik norakoa: ordenagailuaz baliatuz ume batzuen aurpegia agertzen ziren irdudiak pasatzen joan nintzen. Ume bakoitzak keinu ezberdin bat zuen (ALAI, TRSITE, HASERRE, POZIK, IKARATUTA...) eta haurrek keinu hori imitatzen saiatu behar ziren. Keinu ezberdin bat agertzen zen bakoitzean eta behin keinu hori imitatuta, emozio horren inguruko galderak egiten nizkien, hala nola, "nola dago ume hori? zergatik egongo da horrela? Zuek noiz zaudete haserre? Eta pozik...?". Hala ere, askotan nik galderak egin barik hitz egiten hasi ziren, modu espontaneoan.

Umeen erantzunak pentsatzen nuena baino sakonagoak izan ziren. " Ese niño esta triste por que su madre le ha pegado.." edota " ni pozik cuando como un caramelo"... Modu honetan, emozioei hitzak jartzeko gonbitea bat egin nien.

Hikzuntzari begira, esan beharra dago ez diedala euskaraz hitz egitera behartu.

Euren ama hizkuntza erdara dela jakinda eta 3 urteko gela batean egonda, helburua zehatza zen, haurrak euren sentimenduei hitzak jartzea. Hala ere, emozioei lotutako hitz batzuen itzulpena egin nuen, hala nola, " enfadado haserre esaten da".. nola esaten da enfadado?...". Azken finean, helburua ahozketasuna lantzea bada, tresna ezberdinak erabili ditzakegu landu nahi dugun hizkuntzara hurbiltzeko, inondik ere ez, haurra hizkuntza hori erabiltzera behartuz, noski.

ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA

Jarduera uste nuena baino askoz hobeto irten zen. Nik nire jarrerara zaintzen saiatu nintzen; tonu lasaia, begiradarekin haurren txandak bideratzen, afektuzko jarrerak erakutsiz... Baina egia esanda, umeak izan ziren jardueraren protagonista nagusiak. Lehenengo eta behin, asko gustatu zitzairen keinuak imitatzearen ideia eta ume guztiek emozioak adierazteko erreztasun berdina ez badute ere, harritu egin niduen denok saiatu egin zirela. Ahozketasunari begira ere, uste dut planteatutako jarduerak ate asko ireki zituela eta haurrek oso ondo kontrolatzen zuten gai bat proposatu niela, eurek argi baitute kolpe bat hartzen dutenean mina sentitzen dutela eta horrekin malkoak datozela...

Ume batzuek hitz egiteko eta bere emozioak hitzen bidez azaltzeko gaitasun handiagoak dituztenez, nire eginbeharra umeen txandak antolatzea izan zen , ikasgelako ume guztiek hitz egiteko aukera izatea ahalbidetuz. Haur batzuek ez zuten hitzik esan baina ezin dut esan jardueran parte hartu ez zutenik, lagunak hitzak entzun baitzituzten eta horrek etorkizunean garatuko duten ahozko hizkuntzan lagungarri izango delakoan bainago.

AHOZKOTASUNA LANTZEKO

JARDUERAREN DISEINUA

1. FITXA TEKNIKOA

Practicum: Practicum II

Ikaslea: Ane Erice Olaizola

Eskola: Andra Mariko LHI (Getxo)

Gela: 3 urteko gela

Praktiken iraupena: 7 aste (Hasiera azaroak 5- amaiera abenduak 21)

2. HASIERAN LORTU/AZTERTU BEHARREKO ZENBAIT DATU

- Ikasleen ama hizkuntza
- Euskararekin izandako harremana
- Haur bakoitzaren izaera (lotsatia, lotsagabea, negartia, berekoa...)
- Haur bakoitzaren egoera pertsonala familiarekin (aurreko puntuarekin lotuta)
- Ikasgelan ahozkotasuna lantzeko proposatzen diren jarduerak, ekintzak...
- Haurren ahozkotasun maila/arazoak

3. JARDUERA

a) JARDUERA BURUTU AURRETIK:

Hurrei burutuko dugun jardueraren gaineko informazioa zabaldu. Nire kasuan "asmakizunak" landuko ditugu, horretarako zenbait galdera botako diet: "Badakizue zer den asmakizun bat?", "Asmakizunen bat ezagutzen duzue?", "Zertarako balio dute asmakizunak?"...

Umeek argi eduki behar dute zein jarduera burutuko dugun eta zein izango den euren papera jarduera horretan. Horretarako jardueraren nondik norakoak argi utziko diet.

b) JARDUERA:

Aurretik zenbait asmakizun prestatuko ditut. Asmakizun bakoitza orrialde batetan idatzita etorriko da eta azpian erantzunaren marrazkia. Adib:

Bi hanka ditu eta buruan mokoa.

Eseri egiten denean arrautzak jartzen ditu.



Zer da?

c) JARDUERA BURUTU OSTEAN:

Behin asmakizuna asmatuta objektu, animalia, urtaro... horren gaineko galderak zabalduko ditut (Non aurkitu ditzakegu oilo bat? Zein koloretakoa da? Ze soinu egiten ditu? Zer jaten du? ...).

Helburua ez da haurrek asmakizunen erantzuna jakitea, baizik eta tresna horretaz baliatuz, haurrei ahozkoasuna lantzeko une bat eskaintzea. Haurren partaidetza sustatzea, euren iritzia entzutea, euren artean txandak errespetatzea, etab.

4. KONTUAN IZAN BEHARREKO ZENBAIT GAUZA

Hala ere, ez da nahikoa jarduera hau edozein modutan lantzea. Hurrengo lerroetan ariketa hau burutzeko zenbait orientabide emango ditut.

a) IRAKASLEA HITZ EGITEKO ERA

- Abiadura: haurrei hitz egiterako orduan abiadura kontrolatzen saiatuko naiz, ez dut azkar berba egingo eta geldoegia ere ez. Haurrek nire hitzak erraz ulertzeko abiadura jarraitzen saiatuko naiz.
- Esaldien egitura: Esaldi sinpleak erabiliko ditut.
- Tonua, bolumena, intonazioa: Nire tonua baxua izango da, ez naiz saiatuko altu hitz egiten haurren atentzioa bereganatzeko. Euren atentzioa intonazio egoki baten bidez lortzea espero dut.
- Haurren txandak/parte hartzearen kudeaketa: Normala denez, haur batzuek beste batzuek baino gehiago parte hartuko dute. Hori bideratzeko zenbait galdera ume zehatz batzuei zuzenduko ditut- Adib: "Asier, eta oiloak non bizi dira?". Hala ere, ez dut inor hitz egitera behartuko. Bakoitza bere neurrian egin ahal duena egitera bultzatuko dut, baina beti ere ondo pasatzeko helburuarekin, eta ez hitz egiten ez duen umeak hitz egiten behartzeko.

- Eredu linguistikoa: Ahalik eta eredu linguistiko onena eskaintzen saiatuko naiz.
- Segurtasun afektiboa: ezinbestekoa iruditzen zait haurrari segurtasun afektibo bat eskaintzea
- Zuzenketak: Ez ditut haurrak zuzenduko. Beharbada berak esandakoa modu egokian errepikatzen saiatuko naiz baina ez dut inoiz esango, "hori ez da horrela esaten!".

b) IRAKASLEAREN GORPUTZ-JARRERA:

- Ahozkotasuna lantzeko gorputz keinuak zainduko ditut.
- Begiradaren bidez haurren txandak eta atentzioa kontrolatzen saiatuko naiz.
- Tonua ahalik eta lasaien izatea saiatuko naiz (hala ere, pixkat urduri egongo naizela uste dut)
- Afektuzko jarrerak erakutsiko ditut.
- Haurren artean liskar bat sortzekotan, jarrera demokratikoa bat hartuko dut. Momentuan haurrak banandu eta ekintza amaitzean gertatutakoa azaltzea eskatuko diet.

c) TALDEAREN ETA ESPAZIOAREN ANTOLAKETA

- Borobilean jarriko bara, denok denon aurpegiak eta ahotsak ikusi-entzuteko.
- Leku argi batean kokatzen saiatuko gara.
- Klase kide guztiok hartuko dugu parte jardueran.